

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko urriaren 28a

645. zenbakia

KULTURA / Zinema emanaldiak aldarrikatzen diharduen talde batek filma berandu eta leku aldrebesan emango dela salatu du

'Aupa Etxebeste!' filma emango dute gaur eta bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan

EDU MENDIBIL

Udalak antolatuta, *Aupa Etxebeste!* filma ikusi ahal izango da aste bukaeran Bergaran. Gaur, egubakoitza, eta bihar bina emanaldi izango dira, 20:00etan eta 22:30ean. Novedades itxi zutenean zinema emanaldiak berreskuratzeke osatutako taldeak idatzia kaleratu du asteon.

Aste Santuan Novedades itxi zutenetik ez da zinema emanaldirik egon Bergaran, abuztuan San Martin plazan egindako emanaldiak salbu. Orain, *Aupa Etxebeste!* neurri handi batean Bergaran filmatuta izan eta zuzendarietako bat bergararra dela kontuan izanda, Udalak ahalegin berezia egin du filma ekartzeko. Zinemarako areto aproposik ezean, Udal Pilotalekuan izango dira emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan, 20:00etan eta 22:30ean.

LAU EMANALDI, 15.000 EURO

Donostiako Servicios Cinematograficos J.M. Salinas enpresa arduratuko da emanaldietaz. Ezkerreko paretan, frontoiaren erdian jarriko dute pantaila, 10x5 metrokoa. Era berean, soinua hobetze aldera, lau baffle kokatuko dituzte kantuan. Aste bukaerako lau emanaldiek 15.000 euroko aurrekontua daukate.

Emanaldi bakoitzeko 700 lagun sartu ahal izango dira. Hori da harmailetan aurreikusitako eserleku kopurua. Sarrerak 2 eurotan salduko dituzte. Arratsaldeko emanaldirako 18:00etan zabalduko dute leihatila eta gaueko emanaldirako, 21:00etan.

ZINEMA ZALEEN PROTESTA

Herriko zinemazale talde batek zinema emanaldiak aldarrikatzen dihardu udaberritik, martxoaren 28an Novedades aretoa itxi zutenetik. Asteon idatzi bat kaleratu dute. Asier Altuna *Kixi* zinema zuzendaria dugu idatzia sinatu dutenetako bat. Zera adierazi dute: "Novedades areto zaharrraren heriotza bazetorrela ikusita, alde zuzenetik martxan izan beharko zukeen erabilera anitzeko aretoa. Uztailean prentsa-



Aupa Etxebeste! Bergaran filmatu zuten neurri handi batean. Ikuslego Gaztearen saria eskuratu zuen Donostiako Zinemaldian.

Emanaldi bakoitzeko 700 lagun sartu ahal izango dira frontoira

ren bidez jakin genuen Zabalgotegiko lokalean erabilera anitzeko areto bat egokitzeko lanak egin eta 2006ko hasierarako zinema, antzerki, hitzaldi eta antzerakoez gozatzeko aukera izango dugula. Zabalgotegik hautsa piltzen jarraitzen du, ez da oraindik inongo lanekin hasi". Era berean, idatziaren sinatzaileek

'Kixi' eta filmeko hainbat aktore gaur arratsaldeko emanaldian izango dira

Aupa Etxebeste! filmaren emanaldia berandu eta leku aldrebesan egingo dela salatzen dute. Gaur elkarretaratzea egingo dute frontoian, 19:30ean.

ALKATEAREN ERANTZUNA

Victoriano Gallastegi alkateak zera esan digu: "Kiroldegian edo Udal Pilotalekuan bakarrik antolatu zitekeen emanaldia eta pilotalekuak eskaintzen ditu baldintzarik onenak. Filma estreinatu eta handik gutxira esan genuen filma ekarriko genuela. Niri ere pena handia ematen dit Bergaran zinemarako areto egokirik ez egotea. Nork ordaindu behar du zerbitzu hori? Gauzak ondo aztertu behar dira, eta alternatibak eskaini. Lehengo zinema aretoa pribatu zen, Udalak diruz lagundutakoa. Bestalde, Zabalgotegiko eta Seminarioko auditoriaren gaineko txostena eskuartearen daukagu eta hura aztertu ondoren hartuko dugu erabakiren bat".

Etxebestetarrak Bergaran bueltan

Aupa Etxebeste! filma joan den irailaren 22an estreinatu zen, 53. Zinemaldiaren barruan. Telmo Esnalen eta *Kixi*-ren filmak Ikuslego Gaztearen saria eskuratu zuen Donostian eta gainerako zinema aretoetan ikusleen harrera beroa jaso du estreinaldi egunetik. Dagoeneko sekula euskaraz egindako film batek izan duen ikusle kopururik handiena lortu du: 50.000 ikusle. Aurretik, Koldo Izagirrerren *Offeko maitasuna* zuen errekorra, 26.961

ikuslerekin. 221.464 euro jaso ditu orain arte *Aupa Etxebeste!*k.

Kixi eta Telmo joan den urteko abuztuan hasi ziren Etxebestetarren istorioa filmatzen, Bergaran. Itxurakerien gaineko komedia da. Ramon Agirre, Elena Irureta, Pako Sagartzazu eta Iban Garate aktoreak dira protagonistak. Etxebestetarren hainbat aktore Bergarara itzuli eta *Kixi*-rekin batera egubakoitz arratsaldeko emanaldian izango dira.

EMAKUMEA / Kartelak aurkezteko epea azaroaren 18ra arte dago zabalik; irabazleak 200 euro jasoko ditu

Emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko kartel lehiaketa deitu du BEKEk

E.M.

Bergarako Emakumeen Kultur Elkarteak (BEKE) emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko kartel lehiaketa deitu du. Partaideek azaroaren 18ra arte izango dute lanak entregatzeko aukera. Irabazleak 200 euroko saria jasoko du.

Emakumeen aurkako indarkeria salatzeke nazioarteko eguna ospatuko da azaroaren 25ean. Hori dela eta, kartel lehiaketa deitu du BEKEk. 15 urtetik gorako edozeinek parte har dezake eta kartelak kolore eta teknika librez egin ahal izango dira. Derrigorrezko testua azaldu beharko da aurkeztutako lanetan: *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez!*.

AZAROAREN 18RA ARTE

Lanak aurkezteko epea azaroaren 18ra arte izango da zabalik. Irabazleak 200 euroko saria jasoko du eta sari banaketa ekitaldia azaroaren 25ean egingo da. Aurkeztutako lanekin erakusketa egingo da Nahikarin. Argibideak 943 76 07 95 zenbakian.



BEKEko kideek emakumeen eskubideak aldarrikatzeko iaz egindako elkarretaratzea.

LABUR

Kilometroak Txiki martitzenean Pertxaren eskutik

Urtero bezala, Pertxa elkarteak Kilometroak Txiki ospakizuna egingo du martitzenean, azaroaren 1ean.

1991n Bergaran ospatutako Kilometroak eguneko ibilbidea egingo dute, 10:00etan Santa Marinatik irtenda. Hamaiketako San Martzialen egingo dute. Ondoren, ibilaldia egin ostean, Pertxa elkartearen baba jana izango dute, 14:30ak aldera.

Argibideak eta izenematea Pertxa elkartearen, 943 76 33 50 telefonoan.

1930eko eta 1946ko bergararren ospakizunak

1930ean jaiotako bergararren bazkaria izango da azaroaren 13an Zumelagan. Izenematea 943 76 15 88, 943 76 22 22 edo 943 76 26 23 telefonoetan.

1946an jaiotako bergararrek afaria egingo dute azaroaren 26an, Tartufo jatetxean. Izenematea bertan egin daiteke. Argibideak 943 76 33 51 telefono zenbakian.

AGIRRE • AGIRRE • AGIRRE • AGIRRE • AGIRRE • AGIRRE • AGIRRE • AGIRRE • AGIRRE • AGIRRE • AGIRRE • AGIRRE



AGIRRE

AZAROAN % **10** eko deskontua



ALBA CONDE • JOCAVI • ELISA RIVERO (taila handiak) • LACOSTE

OSOKO BILKURA/ EAJ-EA eta Aralar alde eta PP eta PSE-EE kontra azaldu ziren

Udal zerga gehienak %3,5 igoko dituzte 2006an

BERRIGARA

Asteheneneko osoko bilkuran, 2006. urterako udal zergen igoera %3,5ean finkatzea onartu zuten EAJ-EAK eta Aralarrek. Edozelan ere, uraren, zaborraren eta estolderiaren erreziboak %5,1eko igoera izango du.

Esan bezala, udal zerga, tasa eta prezio publikoen % 3,5eko igoera (2005ean Gipuzkoan aurreikusitako Kontsumo Prezioen

Indizea) onartu zuen udalbatzak astehenean. EAJ-EA koalizioa eta Aralar igoeraren alde azaldu ziren eta PPko eta PSE-EEko zinegotziek ezezko botoa eman zuten. Ezker Batuko ordezkaria ez zen udalbatzan izan.

Edozelan ere, hainbat zerbitzuz kopuru hori baino igoera handiagoa izango dute: zaborrena (%17,6ko igoera), estolderia (%5,8), kanposantuko zerbitzua (%5) eta merkatua (%5). Alkateak argitu zuenez, zaborra, ura eta estolderia biltzen dituen hiruhi-

labeteko erreziboan igoera %5,1 izango da, ura ez baita igoko. Bestalde, kanposantua eta merkatua gaur egun defizitarioak direla argudiatu zuen.

ETXEBIZITZA SAILAREKIN AKORDIOA

Udala eta Jaurlearitzako Etxebizitza Saila atzo sinatzekoak ziren hitzarmenari oniritzia eman zioten osoko bilkuran. Bizigune programaren barruan, hutsik diren etxebizitzak merkatuan eskuragarri izateko konpromisoa hartu du Udalak.



BERRIGARA

Kanposantuko zerbitzuak %5eko igoera izango du.



Herriko hainbat odol emaille saritu zituzten domekan Arraten

Bailarako odol emailleek urteko ospakizuna izan zuten domekan, Arraten. Lagunartean bazkaldu eta egun ederra igarotzeaz gain, odol emailerik finenak saritu zituzten. Bergarari dagokionez, 46 izan ziren egindako odol emateengatik domina eta diploma jaso zutenak, tartean aipamen berezia jaso zuen Kontxi Larrañaga (64 emate). Argazkian, Arratera joandako bergararrak.

LABUR

1964an eta 1939an jaiotako bergararrek ospakizuna egingo dute azaroaren 19an

1964an jaiotako bergararren afaria izango da azaroaren 19an, Torrekua jatetxean. Izenematea San Martin plazako kioskoan.

1939koek bazkaria egingo dute egun berean, Pertxan. Izenematea: 943 76 24 79 (Eulali) edo 943 76 28 58 (Peio Garitano).



1945ean eta 1944an jaiotako bergararren ospakizunak azaroaren 12an eta 13an

1945ean jaiotako bergararrek afaria egingo dute azaroaren 12an, Torrekua jatetxean, 21:00etan. Izen ematea Kutxan zabalduko kontuan, 30 euro ordainduz. 1933an jaiotakoek, berriz, bazkaria egingo dute azaroaren 13an, Zumelagan. Izenematea (6 euroko aurreapena) Intxorta tabernan egin daiteke.

1938an jaiotako bazkaria azaroaren 5ean eta 1944an jaiotako afaria azaroaren 26an


1938an jaiotako bergararrek bazkaria izango dute azaroaren 5ean Pertxa elkartearen. Izenematea ondoko telefonoetan egin daiteke: 943 76 15 36 (Mariasun Gardoki) edo 943 76 18 64 (Migel Lazkano).

Bestalde, 1944an jaiotako afaria izango da azaroaren 26an Azpeitxi jatetxean. Izenematea 943 76 13 61 (Mari Carmen Garitano) eta 943 76 23 70 (Sanchez) telefonoetan, azaroaren 21era arte.



Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK: Matxiategi 3 • 943 76 12 22
SUKALDEKO ALTZARIAK: Matxiategi 4 • 943 76 37 53





BERRIGARA

Spinningak gero eta jarraitzaile gehiago ditu. Azaroaren 12an pedalei gogor eragin beharko diete spinningzaleek.

SPINNING/ 50 minutuko lau saioa izango dira; izenematea azaroaren 9ra arte zabalik

Spinning maratonia izango da azaroaren 12an Bergaran

E.M.

Debagoieneko I. Spinning Maratoia egingo da azaroaren 12an Bergaran. Labegarrietako kiroldegian izango da maratonia, 16:00etatik 20:00etara. Izena emateko epea azaroaren 9a bitartean izango da zabalik. Antolatzaileek 200 bat lagun biltzea espero dute.

Debagoieneko kirol zerbitzuek antolatu dute azaroaren 12ko spinning maratonia. Lau orduko saioa izango da, baina partaideek ez daukate saio osoa egin beharrik. Horrela, saio bakar baterako, birako, hirurako edo maratoi osorako izena emateko aukera izango da.

Spinning maratonia 16:00etan hasiko da, Arrasateko E-Goitek kirol enpresako monitoreak zuzendutako saioarekin. Ondoren, spinningzaleak Nuria Rodriguezen esanetara jarriko

dira, 17:00etatik 17:50era. Hirugarren saioa Goienasportek zuzenduko du eta, azkena, berriz, Santi Idigoras ezagunak, 19:00etatik 19:50era hain zuzen. Realeko jokalaririk ohia aerobik eta spinning irakaslea dugu gaur egun. Idigorasen saioarekin amaituko da maratonia.

Aerobikaren eta txirrindularitzaren arteko nahasketa dugu spinninga. Musikaz lagunduta, pedalei eragin beharko diete partaideek, momentu batzuetan erritmo biziagoz eta bestetan motela-

goz. Izerditan majo egingo dute partaideek.

Azken urteotan hazkunde nabaria izan du spinningak. Jarraitzaile ugari dauzka eta Bergaran ere Udaleko Kirol Zerbitzuak ikastaroak antolatzen ditu urtean zehar, Labegarrietako kiroldegian.

Iratxe Aranburu Udaleko Kirol teknikariak esan digunez, azaroaren 12an 200 bat lagun biltzea espero dute.

IZENEMATEA ZABALIK

Maratoiko saio bakar baterako izena emanez gero, 5 euro ordaindu beharko dira; bi saioengatik, 9 euro; hirurengatik, 13 euro eta maratoi osoa eginez gero, 17 euro ordaindu behar dira.

Izenematea, esan bezala, azaroaren 9ra arte izango da zabalik. Interesatuak 943 77 91 67 telefono zenbakira edota kirolak@bergara.net helbidera jo dezakete argibide eske.

Besteak beste, Nuria Rodriguez eta Santi Idigoras ezaguna izango dira saioak zuzentzen

Pilota partiduak bihar Osintxun eta etzi Bergaran


E.M.

Gaztetxoan mailako partiduak izango dira zapatuan Osintxuko pilotalekuan, 16:00etan. Gabon Sariko hamaika partidu iragarri dituzte. Oraingo aste bukaeran ez da Gipuzkoako infantil mailako partidurik jokatuko Osintxun, atsedean jardunaldia izango da eta.

DOMEKAN, UDAL PILOTALEKUAN

Domekan, berriz, Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako par-

tiduak jokatuko dira Udal Pilotalekuan. Jaialdia 11:30ean hasiko da eta pilota zaleek hiru partidu ikusteko aukera izango dute: bigarren kadete mailan, Jon Perezek eta Aritz Rezustak Ernioiko ordezkarien aurka jokatuko dute; bigarren gazte mailan, Oier Aldaik eta Jon Larrañagak Eibar-ko bikotea izango dute aurrez aurre eta, azkenik, bigarren senior mailan, Eneko Mugurutz eta Joseba Herran bergararrak Aretxabaletako ordezkarien aurka arituko dira.



BERRIGARA

Domeka goizean partiduak izango dira Udal Pilotalekuan.

LABUR

Azaroaren 13an jokatuko den Behobia-Donostia lasterketako izenematea zabalik

Behobia-Donostia korrika lasterketa jokatuko da datorren azaroaren 13an, goizez, 11:00etan. Partaideek ohiko ibilbidea egin beharko dute, 20 kilometrokoa.

Izenematea zabalik dago Fortuna elkartearen azaroaren 5era arte. Partaideek 20 euro ordaindu beharko dituzte. Argibideak 943 31 48 59 telefono zenbakian.

Bergara-Donibane domekan eta eskubaloian jokatu nahi duten gaztetxoei deia

Senior mailako eskubaloi taldeak Donibane liderraren bisita izango du domekan kiroldegian, 12:15ean. Bestalde, 12-13 urteko neska eta mutilen deia egiten die eskubaloi sailak. Infantil taldeak osatzeko jokalaririk behar dituzte. Mutilen taldeko entrenamenduak eguazten eta egubakoitzetan kiroldegian, 17:30ean. Neskak Seminario elkarteko dira egubakoitzetan, 19:30ean.

smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINU+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

7505 zenbakira

Deiaren prezioa: **0,90 + BEZA**



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoko bateragarria den eskubide ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
 Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

2. BALDINTZAK: Edukiak eskubideak, beharrezko da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuko jarraitzen zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea duan da eta Kb jaitziera bakarrak ordaindu beharko dute. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemaren aldaerara doan dira.
 * Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora.
 Vodafone: deitu 123-ra / ** Movistar: deitu 089-ra

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jaso gurekin kontaktatu: smsoinu@smsoinu.com edo deitu **902 01 21 48** telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure izenra egin ditzakegu abesti eta logotak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileak eskura dazakezu nahi baduzu, jaso gurekin harremanetan eta deitu **902 01 21 48** telefonora.

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1) Abestiaren izena (Abestia) | KODEA

Himnoak
 Eibar | EIBAR
 Athletic Club | BILBAO
 Osasuna | OSASUNA
 Real | REAL
Pop-Rock
 Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA
 Aizkolari (kortatu) | AIZKO
 Amore amore (Karidako benta) | AMORE
 Bi Minutero (Hertzainak) | BIMINU
 Dub manifest (Fermín Muguruza) | DUB
 Egurero (Hertzainak) | EGURERO
 EH Sukarra (EH Sukarra) | SUKAR
 Elos dican mierda, nosotros amen (La Polla) | ELLOS
 Enamorado de la muerte (RIP) | ENAMO
 Etorkizuna (Esaaki) | ETORKI
 Ezer ez da betiko (Ken7) | EZER
 Gora Herria (Nogu Gorriak) | GORA

Hator Bel-Air (Bide Ertezan) | BELAIR
 Haizea (Ken7) | HAIZEA
 Hegal egiten (Itzi) | HEGAL
 Ikusi (Dolirain Tremes) | IKUSI
 Ilargia (Ken 7) | KEN
 Inpernuen ate joka (gabur) | INPER
 Jokin Urain Hitzak (Bide Ertezan) | JOKIN
 Kaixo (Urza) | KAIXO
 Lau Teilatuta (Itzi) | ITOIZLAU
 Laztana (Lazten) | LAZTA
 Lotuta egon arren (Kakaina) | LOTUTA
 Loretxoa (exxoa) | LORE
 Marea Gora (Itzi) | MAREA
 Musturrek sartunde (gabur) | MUSTURREK
 Nicaragua (kortatu) | NICAR
 No time for love (Hertzainak) | NOTIME
 Salve (La Polla) | SALVE
 Sani Sani (kortatu) | SARRI

Sorginen leizean (Eskubi) | SORGIN
 Txabko (Zarama) | TXATXOI
 Txus (La Polla) | TXUS
Trikixita
 Bexamela ta pastela (Maizta ta bizi) | BEXAMELA
 Bokespok (Kepa Junkera) | BOKESPOK
 Hik lan eta nik jai (Tapi) | HIK
 Itsas ontzi baten (Kaxiano) | ITSAS
 Kupela (Epede eta Larrañaga) | KUPELA
 Milla galdara (Aitz) | MILLA
 Nirekin (Gozategi) | GOZATEGI
 Ny Hirahira (Kepa Junkera) | HIRA
 Txanpon baten truke (Aitz) | TXANPON
Folk
 Arratsalde honetan (Sorotan Bela) | SOROTAN
 Bai euskarari (Pantxo) | BAI
 Bakezaleak (Ane Duhalde) | BAKE
 Bizkaia Maite (Berito Larrañaga) | BIZKAIA

Eperrak (Ane Duhalde) | EPERRAK
 Euskal Herria Euskaraz (okorri) | EUSKAL
 Euskaldun berriaren balada (okorri) | EUSKALDUN
 Ez da posible (Piper Ordorika) | POSIBLE
 Furra Furra (okorri) | FURRA
 Galiziara noa (okorri) | GALIZIARA
 Gemikako Arbola (Gortzel Mendibil) | GERNIKA
 Haika Mutil (Mikel Laboa) | HAIKA
 Izarren hautsa (Oskier Leta) | IZARREN
 Lepoan hartu ta (Pantxo/Paio) | LEPOAN
 Maniñelaren zai (Sorotan Bela) | MARINE
 Nere herriko neskatza maite (Larrazola) | NERE
 Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarín) | NON
 Oñ Ama Euskal Herria (Larrazola) | OIAMA
 Tirakui (okorri) | TIRA
 Txabamabaitabatu (Mikel Urdangarín) | TXATXA
 Txoria bori (Mikel Laboa) | TXORIA
 Zaindu maite duzun hori (Piper Ordorika) | ZAINDU

Herrikoia
 Bagare | BAGARE
 Desde Santurce a Bilbao | DESDE
 Ikusi Mendizaleak | MENDI
 Pintxo-pintxo | PINTXO
 San Simon eta San Judas | SAN
Jaietakoak
 Artillerio dale fuego | ARTILLERO
 Manjaria (Kepa Junkera) | JAIA
 San Fermín | FERMIN
 San Martzialak alardeak | SAN MARTZIAL
SOINU ERREALAK (2 sms)
 Soinu izena | KODEA
 Irrintzia | IRRINTZI
 Txalaparta | TXALA

LOGOAK (SMS 1)

IKURRIAZ | LAUBU
 LAUBURU | EIBARPOOL

JOKOAK (4 sms)

SUDDOKU | BARONROJO
 BOINK | RALLYDELUXE
 FUTVOLEY | SOBALL

PILOTA/ Bengoetxea VI.ak Agirre kanporatu zuen domekan Bergaran; Xalaren lehen partidua izango da domekakoa

Xala-Bengoetxea VI.a: lau t'erdiko finalerdietarako txartelaren bila domekan

E.M.

Lau t'erdiko txapelketaren barruan, Xala eta Bengoetxea VI.a aurrez aurre izango dira domekan, Bergarako Udal Pilotalekuan 17:00etan hasiko den jaialdian. Irabazleak finalerdietarako txartela eskuratuko du.

Txapelketaren barruan Oinatz Bengoetxeak Bergaran jokatu duen bigarren partidua izango da domekakoa. Aurreko domekan Imanol Agirre kanporatu zuen, 22-19ko emaitzarekin. Leitzarrak makina bat lan egin behar izan zuen bizkaitarra kanporatzeko. 20-10 izan zen aurretik markagailuan, baina Agirrek ez zuen etsi azken tantura arte.


Xalak, berriz, txapelketako lehen partidua izango du domekakoa eta ikusteko dago zein pun-

tutan heltzen den finalerdien atarira. Edozein modutan, Iparraldekoa dugu aurrera egiteko faboritoa. Oraingo aste bukaeran txapelketaren barruan jokatu diren gainerako hiru partiduetan hauek dira: Titin III.a-Gonzalez (gaur Donostian) eta Beloki-Patxi Ruiz eta Olaizola II.a-Koka, bihar Balmasedan eta Iruñean, hurrenez hurren.

SARRERAK 10 ETA 30 EUROTAN


Domekako jaialdian beste bi partiduetan hauek izango dira: Eugi-Apeztegia/Galarza V-Lasa III. a eta Baleztena-Urberuaga/Larralde-Laskurain. Frontoiko leihatila 15:00etan zabalduko dute domekan eta sarrerak 30 eta 10 eurotan salgai jarriko dituzte.

Bestalde, martitzenean, azaroaren lehen eguna, pilota jaialdia izango da Bergarako Udal Pilotalekuan, 17:00etan.



Oinatz Bengoetxeak nahiko sufritu zuen domekan Agirre kanporatzeko. Leitzarra 22-19 nagusitu zen.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA



JAVIER P. FDZ FERRERAS

Kirol argazkien lehiaketa deitu dute

Udaleko Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol Argazki Taldeak Kirol Argazkien XV. Lehiaketa deitu dute. Kirolarekin lotutako zuri-beltzeko zein koloreko lanak aurkeztu ahal izango dira. Lanak entregatzeko epea azaroaren 11n bukatuko da eta sari bana-keta, berriz, abenduaren 2an egingo dute. Argibideak Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 telefonoan.

Erregional mailako taldea, Legazpiko Gaztetxea taldearen aurka, zapatuan

E.M.

Erregional mailako Bergarako futbol taldeak Legazpiko Gaztetxea taldearen bisita izango du bihar, zapatua, Agorrosinen, 12:00etan. Aurreko zapatuan Ondarroan 0-3 irabazi ondoren, sailkapeneko bigarren tokian ditugu mahoneroak.

Bergara Zumaiakoren atzetik dugu sailkapenean, 13 puntuekin. Jokatuak sei partiduetan gol gutxien jaso duen taldea da Bergara: bi gol besterik ez diote egin. Bihar bisitari izango duten Legazpiko Gaztetxea taldea sailkapeneko azken tokietan dugu. Ez dute oraindik partidurik irabazi, bi puntu baino ez daukate eta gol gehien jaso duen taldea da: 21 gol egin dizkiote.



Senior mailako neskek Agurain hartuko dute domekan.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Aste bukaeran beste hiru partiduetan jokatu dira Ipintzan: zapatuan, Bergara-Arizmendi (neskak, futbol-8), 10:00etan eta Ber-

gara-Vasconia (ohorezko gazte maila), 16:30ean. Domekan, Bergara-Agurain (senior mailako neskek), 16:00etan.

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

**KABIA
ERRETEGIA**

Orain astelehenetik larunbatera zabalik

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Asteburuetan bazkariak eta afariak

Zubiaurre 23 Tel.: 943 76 23 08

MUSIKA/ Bi kontzertu asteburuan

Punk eta rock doinuak entzungo dira asteburuan gaztetxean eta Jam aretoan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bi musika emanaldi antolatu dituzte asteburu luze honetarako Bergaran. Jam aretoan bihar, zapatua, atzerriko bi taldek jardungo dute. Gaztetxean, berriz, beste bi talderen kontzertua egongo da. Punk eta rock doinuak izango dira entzuzgai bi emanaldiotan.

Zapatuan 20:30ean zabalduko dituzte Jam aretoko ateak, eta Hell Is For Heroes eta Disco Ensemble taldeek jardungo dute.

Britainia Handiko punk-metal talde gisa aurkeztu zuten euren burua hasieran Hell Is For Heroes taldekoek. Gerora, ordea, hardcore, emo, punk, metal, indie eta halako estiloetan ere kokatu dituzte. Baina finean boskoteak bene-benetako rock-and-rolla entzuteko aukera eskainiko duela esan genezake. Justin Schlosberg (ahotsa) William McGonagle (gitarra) Tom O'Donoghue (gitarra) James Findlay (baxua) eta Joe Birch-ek (bateria) osatzen dute taldea.

Disco Ensemble taldekoak finlandiarrak dira. Une honetan, disko berria aurkeztuz biran dihardute Europan barrena Finlandian ibili ostean. *First Aid Kit* da euren bigarren diskoa. Punk gogorra, oso ondo idatzitako abestiak eta melodia indartsuak batzen ditu lan honek. Gaur egun, punk-rock moderno tankerako musika da taldearen estiloa.



GOIENKARIA

Eraso talde zarauztarra *Kontra* diskoa aurkeztera etorriko da Bergarako gaztetxera, zapatuan.

ERASO ETA ABY-KEM GAZTETXEAN

Bestalde, gaztetxean Eraso eta Aby-Kem taldeen kontzertua izango da zapatuan, 22:30ean hasita.

Eraso talde zarauztarra metal talde indartsua da. 90eko hamarkadaren erdian sortua, *thrash*-ik

azkar eta basatienetik gaur egungo soinu garaikideetara garatu du bere soinua.

Bergarara azken lana, *Kontra*, aurkeztera etorriko dira. Mikel Anestesiak ekoiztu duen diskoan hamar kantu aurkituko ditugu.

Eurekin jardungo dute Bergarako Aby-Kem (lehengo AK-47) taldekoek ere.

Bestalde, egubakoitzerako iragarrita zegoen Zura taldearen kontzertua bertan behera geratu dela jakinarazi dute.

LABUR

Abesbatzen emanaldia atzeratu egin dute

Urriaren 29an San Joxepeko eta Errenteriako Maialen abesbatzak egitekoak ziren emanaldia abenduaren 3ra atzeratu dute. Kontzertua Santa Marinako elizan izango da, 20:00etan.

Taila ikastaroa azarotik maiatzera Zabalotegin

Taila ikastaroa izango da Zabalotegin azaroaren 2tik aurrera. Taila Elkarteak Zabalotegiko dorrearen azpian duen lekuan izango dira eskolak eguaztenetan, 18:00etatik 20:00etara. Ascensio Esnaola izango da irakaslea. Interesatuak eguaztenean bertan jo dezakete Zabalotegira izena ematera.

Euskal mitologia hizpide bihar goizean kultur etxean

Bergarako Herri Mugimenduak antolatuta, Herri Eskolak egitasmoaren baitan euskal mitologiari buruzko tailerra izango da bihar, zapatua. Horrekin amaituko dute Euskal Herriko historiaren gaineko atala. Kultur etxean egingo dute saioa, 10:00etan hasita, eta Josu Naberan izango da hizlaria.

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan


Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

MINGAINARITIRAKA



Gemma Otaño

GIARTZU GIMNASIOKOA

Amarekin, ahizparekin eta mutil-lagunarekin lan egiten du Gemak Giartzun. 30 urte ditu eta 15 hilabeteko alabatxoa. Heziketa fisikoko irakaslea eta estetizista da. Denbora librean, alabatxoarekin gotea gustatzen zaio.

Goizean goizetik saltoka, sasoi onean egongo zara, ezta? Orain gehiago jarduten dut estetizista bezala, baina bai, sasoi onean nago.

Estetika zentroa da zuena. Gaur egun ez diogu garrantzi handiegia ematen estetikari?

Ez dut uste horrela denik; hona etortzen den jendeak nahi duena da bere burua zaindu, ez dago obsesionatuta.

Pilates, aerobika, spinninga... Zeuk zer duzu gustukoen? Spinninga; gorputza asko lantzen delako eta, gainera, kirol ezberdin bat egiteko aukera eman didalako.

Zure lanean, zer gustatzen zaizu gehien? Gure tratamenduekin eta ariketa fisikoekin lortutako emaitzekin bezeroak gustura ikustea.

Eta gutxien? Niretako denbora laburregia dudala; lan lotua da. Amarekin, ahizparekin eta mutil-lagunarekin lan egitea erraza da?

Bai, oso gustura nabil; nork bere lana eta espazioa dugu eta oso ondo moldatzen gara.

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu? Orain, alabatxoarekin paseatzea; ahal dugunean, motorrean ibiltzea ere gustatzen zaigu mutil-lagunari eta bioi.

Zela definituko zenuke zeure burua? Oso baikorra naiz, pozik bizi naiz.

Zerk amorratzen zaitu? Faltsukeriak.

Lagun batengan, zer da gehien estimatzen duzuna? Zintzotasuna.

Liburu bat? El código Da Vinci, Dan Brown-ena.

Film bat? El sexto sentido.

Eta bukatzeko, amets bat? Loteria tokatzea; horrela, zentroa berrituko nuke, langileak kontratatu eta ni lan gutxiago eginda bizi izango nintzateke.

AINZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Nagore Inurrategi

MAURITANIA / 2005eko uztaila

Koadrilako lau lagun joan ginen uztailan Mauritaniara: Aitziber, Iban, Iñaki eta laurok. Oporretarako plan barik geunden, ez genekien nora joan. Ibanek esan zigun Mauritanian bizi den lehengusina bisitatzera joateko gogoz zegoela; horrelaxe, denok animatu ginen.

Ez da batere herrialde turistikoa; segituan ohartu ginen horretaz. Bidaia agentzia batera joan ginen hegazkineko txartelak lortzeko, eta han ere gauza gutxi zekiten Mauritaniaren gainean.

Nuakchot da hiriburua; hantxe pasatu genituen lehendabiziko egunak, Lierniren, Ibanen lehengusinarekin, etxean. Kooperante moduan joan zen hura orain dela urte batzuk, eta hantxe geratu zen bizi izaten.

Oso interesgarriak izan ziren egun haiek; hiriburuko kaleak jendez gainezka zeuden, kaleak lurrezkoak dira, asfaltatu barik daude... Ez da polita, baina bai ikustekoa. Kostaldetik oso gertu dago Nuakchot, eta portua dauka; arrain ugari iristen da hara. Alde horretatik, aberatsa da, arrain asko dago, baina, era berean, oso hiri txiroa da.

Handik desertura joan ginen; Chingeti izeneko herri txiki baten egon ginen bost egunez. Herriko medikuaren etxean hartu genuen ostatu, Liernik



“Oso beroa da Mauritania; arratsaldez lo besterik ezin izaten genuen egin”

“Azkeneko egunetan Senegalen egon ginen, Saint Louisen; aldaketa handia izan zen”

ezagutzen zuen-eta. Oso esperientzia polita izan zen.


Handik hiriburura itzuli ginen, Lierniren etxera. Gero, kostaldera joan ginen. Gau bat hondartzan pasatu genuen eta bainu ederrak hartu genituen. Gustura baino gusturago ibili ginen hondartzan, besteak beste, tenperatura hobea egiten zuelako. Izan ere, esan beharra dago Mauritania oso beroa dela; izugarriko beroa egiten zuen. Arratsaldeko ordu bietatik seiak aldera arte, lo besterik ezin izaten genuen egin.

Hondartzan egon ginen egun haietan, estatu-kolpea izan zen Mauritanian. Gure familiek gu baino lehenago jakin zuten berria. Gero, hiriburuan militarrek ikusten genituen kaleetan, baina, egia esan, egoera ez zen batere larria izan.

Azkeneko egunak Senegalen pasatu genituen. Aldaketa handia nabaritu genuen; jendea beltz-beltza da han, janzkera ezberdina da, paisaia askoz berdeagoa... Saint Louisen egon ginen, eta oso turistikoa da.

Laburbiltzeko, esperientzia ezin hobea bizi izateko aukera izan genuen, edozeinendako gomendagarria. Hori bai, frantsesa ikasita joaten bazarete, askoz hobe. Edo arabiera.

AINZANE IRIZAR



Iban, Iñaki eta Aitziber Mauritaniako desertuan.

MP Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

Pintura-lanak orokorrean
•
Pintura industrialia
•
Zoru arinak: sintasolak, moketak...

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimakerak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77


ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

BONOFOTOA

XVI. mendeko ze ermitako erretaula da honakoa: San Martzial, San Esteban ala San Kristobalgoa?



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

AINHOA PARDINArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Ainhoa!
Galderaren erantzun zuzena: **Espaloian.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Maria Fontaneda galletak

800 gramoko kaxa

1,44€

240 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Behobia-Donostia lasterketan

Behobia-Donostia korrika lasterketaren 41. ekitaldia jokatu da azaroaren 13an. Herriko korrikalariak gogor entrenatzen ari dira egunotan.

Oraingo asteko erretratua orain dela 10 urte aterata dago, Behobia-Donostia lasterketaren atarian. Batzuei umorerik ez zaie falta... Ezkerretik eskumara:

Goian: Iker Etxebarria, Aitor Elkoro, Joxe Balentziaga, Aitor Akizu, Aitor Intza, Jon Balentziaga, Jose Luis Osinalde, Xabier Garitano, Aitor Muruamendiaraz, Mikel Alberdi eta Asis Iriondo.

Makurtuta: AsierArrieta, Jon Ander Garitano, Jon Berasategi eta Jon Ugarte.

Argazkia: Berrigara



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixanera. Zain gaituzu!

FARMAZIENTXANDA

- EGUBAKOITZA, 28**
ESTELLA, Matxiategi 5 ... 943 76 19 63
- ZAPATUA, 29**
MOZOS. Iparragirre 2 ... 943 76 12 15
- DOMEKA, 30**
MOZOS. Iparragirre 2 ... 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 31**
CAMACHO. Oxirondo 4... 943 76 11 74
- MARTITZENA, 1**
ZABALA. Barrenkalea 25... 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 2**
GUALLAR. San Antonio 5... 943 76 11 05
- EGUENA, 3**
ESTELLA. Matxiategi 5 ... 943 76 19 63

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) ... 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa ... 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa ... 943 76 62 46
- Ertzaintza ... 943 53 47 20
- Osasun etxea ... 943 76 24 40
- Asepeyo ... 943 76 16 43
- Pakea ... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua ... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua ... 943 76 62 23
- Odol emaleak ... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak ... 943 76 51 06

GARRIAOK

- Taxiak ... 943 76 19 50

UDALA

- Bergarako Udaletxea ... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea ... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa ... 943 77 91 32
- Igerilekuak ... 943 76 20 51
- Kultura etxea ... 943 77 91 58
- Liburutegia ... 943 77 91 62
- Kiroldegia ... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza ... 943 76 13 68

BESTELAKOAK

- Epaitegia ... 943 76 14 92
- Erregistroa ... 943 76 13 15
- Jardun ... 943 76 36 61
- Postetxea ... 943 76 26 85
- Bedelkar ... 943 76 04 68
- Akulu AEK ... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia ... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza ... 943 76 10 73

MEZAK

URTE-MEZAK

- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildil okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik),
17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00
eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ATREBENTZIAEZPADA/ 'Aupa Etxebeste!' filma botako dute asteburuan. Ikustera joateko asmorik?



JUSTINA BALTZATEGI



URDIN ALBERDI




MARIAJE LOPEZ



ANDRES DIEZ



SARA BARRUTIABENGOA



JUAN LUIS BARRUTIA

Ez dakit joango naizen. Ez zait ongi iruditu filmarekin gertatu dena. Bergaran filmatu eta herriko seme batek egindakoa izan eta jende gehiena kanpora joan da filma ikustera. Gainera frontoia ez da leku egokiena.

Oraindik ez dut pentsatu baina beharbada joango naiz, badaukat ikusteko gogoia eta. Frontoian ikustea baino nahiago nuke zinema aretoa egongo balik, baina Udalak ez du horretarako gauza askorik egiten.

Bai, joango naiz. Sarrerak ez ditut erosi uste dudalako jende gehienak ikusi duela filma eta ez dela arazorik egongo. Frontoian ikusi beharra hala ere lotsagarria da; ez egotea filma ikusteko beste lekurik.

Ez naiz joango Bergararik kanpora noa eta. Oraindik ez dut ikusi baina beharbada aukera izanez gero aprobeztatuko dut ikusteko. Ikusi dutenekin ez naiz egon, baina komentario positiboak entzun ditut.

Bergaran egingo diren emanaldietara ez naiz joango aste bukaera honetan lan egin behar dut eta. Esan didate filma ona dela, baina hala ere ez daukat ikustera joateko aparteko interesik.

Ez naiz joango, filma ikusia dut eta. Hala ere, gaizki iruditzen zait frontoian ematea. Batetik sarrera dekalde izan behar litzatekeelako, eta bestetik ez delako leku egokia. Ea behingoz areto bat ipintzen duten.


TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK LAUSARDI Irakurle batek Lausardi abesbatza txalotu nahi du lehengoan eskaintako Afrika ikuskizuna gustuko izan zuelako. "Afrikako doinuez gozatzeko eta kontinentea sentitzeko modua eskaini ziguten koruko kideek. Badakigu horrelako lan bat gertatzea neketsua dela baina sarriago egin behar litzukete", esan digu. /I.A.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Korroskara"



—Turkian maixan korroskariak botatzia edukaziño onan seiñale ei da.

JON IRAEGI

BESTEKEESANA

“UNEDek bi abantaila nagusi ditu. Batetik, ez dago plaza mugaturik, beraz, ikasleak ezin daitezke kanpoan

geratu; unibertsitate publikoaren kontzeptua mugara eraman du, kalitatea kaltetu gabe. Bestalde, ikasleak bere nahien arabera katrikula egin dezake. Urte batean ikasgai bakarra har dezake. Norberak markatzen du lan erritmoa, askatasunez antolatzen du denbora. Ez du iraupen baldintzarik ere. Zuzenbideko ikasle batek karrera bost urtean amaitu beharrean zortzi urtean egitea ez da gaitzespen bidea. Egunkariko enplegu orrietan UNEDeko ikasleak eskatzen dituzte, lan diziplina handia dutelako”.

JUANJO ALVAREZ /
Bergarako UNEDeko zuzendaria
'El Diario Vasco'/05-10-23

HAUGIROA!

MINIMOA **8 °C**
Eguaztena, 19

MAXIMOA **25 °C**
Martitzena, 25

ASTEKO EURIA (l/m²) **14,7 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 19	20 °C	8 °C	1,5 l/m ²
Eguena, 20	19 °C	9 °C	0,5 l/m ²
Egubakoitza, 21	23 °C	13 °C	— l/m ²
Zapatua, 22	21 °C	13 °C	12,7 l/m ²
Domeka, 23	18 °C	14 °C	— l/m ²
Astelehena, 24	21 °C	9 °C	— l/m ²
Martitzena, 25	25 °C	19 °C	— l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

BERAIEKDIÑOE/ Ainhoa Agirreazaldegia



Eskizofrenia

Badakit eskizofrenia hitza serioa dela, eta are serioagoa gaixotasuna. Halakorik inoiz izan dutenei errespetu guziaz adieraziz, esan behar dut batzuetan harrizten nauela honelako gaixo gehiago ez izateak.

Honela dio hiztegiak eskizofreniaz: "adimenaren gaixotasuna, jendearekiko eta errealitatearekiko harremana galtzea eta nortasuna erabat aldatzea ezaugarri duena". Eskizofrenikoak bere buru barruan erakitzen du mundu berri bat, eta horrek aldarazten dio errealitatearekiko harremana.

Zergatik osatu, ordea, beste errealitate bat zure barnean? Niretzako erantzuna argia da: kanpoan dagoen errealitatea gordinegia delako, egia mingarriegia.

Horregatik pentsatzen dut harrigarria dela gure inguruan eskizofreniko gehiago ez izatea.

Imajina ezazue Irakeko bonba artean bizi zaretela, "gerra amaitu" ondoren ere; hogeitaz Espainiako edo Frantziako kartzeletan bere bikotea bisitatu duen pertsona zaretela; hogeita sei urteko alaba bortxatu eta labankadaz hil dioten ama zarela; Perun

mendian bizi zarela eta inoiz ez duzula arrautza bat jan, baina bat-batean turista talde bat heldu dela hegazkinnez; ihes eginda dagoen zure seme-alabaren baten berri ez duzula azken bi urteotan; zure ama ez ezik,

zure amaginarreba zaharra ere zuk zaintzen duzula, emakumea zarelako; bost egunez jarraian torturatua izan zarela, eta salaketa artxibatua geratu dela...

Eta bitartean inguruan jendea erostekak egiten ari da, edo turismoa egiten, edo futbolaz hitz egiten...

Nola asimilatzen dira bi errealitateak buru berean? Eskizofrenikoak iruditzen zaizkit egoera gehiegi.

“Zergatik osatu beste errealitate bat zure barnean: kanpoan dagoen errealitatea gordinegia delako, egia mingarriegia”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 02
Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegia
Oihana Elortza
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko urriaren 28a / 262. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Droga-mendekotasunaren prebentzioa helburu duen kanpaina abiarazi dute

AINTZANE IRIZAR

Gazte eta gaztetxoaren artean droga-mendekotasunaren prebentziorako kanpaina abian jarri du Udaleko Ongizate batzordeak. Hainbat ekintza antolatu dituzte 12 eta 18 urte bitarteko gaztetxoentzako; gurasoei, berriz, informazioa bidali diete.


Aurreko ikasturtean hasi ziren Ongizate batzordean gai honekin lanean. Informazioa jasotzen, beste herri batzuetan zer egiten duten ikusten eta gurean zer egin daitekeen aztertzen jardun zuten.

Guraso zein gaztetxoengana iristea da Udalaren helburua. Horrela, batetik, gurasoei liburu bat bidali diete. Bestalde, gazteentzako ekintzak antolatu dituzte.

Sasoa Durangoko enpresa arduratuko da kanpaina hori aurrera eramateaz.

TAILERRAK GAZTEGUNEAN

Gaztegunean, Errekalde auzoko gaztetxoentzako lokalean, 12 eta 15 urte bitarteko neska-mutiko ugari elkartzen da aste bukaeraro. Hori aprobetxatuta, hantxe antolatu dituzte adin tarteko



Aurreko asteko zapatuan hasi zituzten drogen gaineko tailerrak Gaztegunean.

tako gaztetxoentzako ekintzak. Aurreko zapatuan hasi zituzten. Sasoa enpresako dinamizatzaileekin, tabakoaren gaineko tailerrak egin zituzten. Bihar, zapatua, alkohola izango dute hizpide; hurrengo zapatuan, aisialdiko

kontsumoa; azkeneko zapatuan zine foruma izango dute.

Hamabost urtetik gorako gazteentzako, berriz, bi zine forum antolatu dituzte, azaroaren 11rako eta 18rako, hain zuzen ere. Olanen etxean eskainiko dituzte

filmak, eta ondoren, han ikusita-koaren gaineko berriketaldia egingo dute gazteek.

Udalaren asmoa da kanpaina honi jarraipena ematea eta datoen urteetan ere era horretako ekintzekin jarraitzea.



3,3 kiloko astaputza

Astaputz galantak izan genituen ikusgai Larrea tabernan. Jesus Arregi antzuolarrak topatu zituen astaputzok, Soraluze aldean. 3,340 kilo ditu argazkikoak; dena dela, beste handiago bat ere ekarri zuen, baina, zatarragoa zela eta, txikienarekin atera zuten argazkia. Jesus bera falta da argazkian; haren lagunak ikus ditzakegu, Larreanean, astaputza alboan dutela: Felix Aranburu, Remigio Zabaleta, Juan Jose Etxezarreta, Felix Agirre eta Mitxel Murgiondo, hain justu. /A.I.

LABUR

Zerainera irteera egingo dute erretiratuek

Erretiratuen elkarteak irteera egingo du azaroaren 10ean, eguena. Zerainera joango dira eta hango museoa eta kartzela bisitatuko dituzte. Ondoren, Legazpiko erretiratuen elkartera joango dira, eta hantxe askaria hartuko dute.

Arratsaldeko irteera izango da; 15:00etan irteera dira Antzuolatik. Interesatuak izana emateko aukera izango dute azaroaren 4an eta 5ean, 18:00etatik 19:00etara. Prezioa, 10 eurokoa da.

Arrolaren irteera San Donatora, azaroaren 6an

Azaroaren 6rako, domeka, San Donatora mendira irteera antolatu du Arrolak. Lizarrragatik San Donatora joango dira oinez; lauzpabost orduko ibilaldia egin beharko dute. 08:30ean irteera dira Antzuolatik eta 18:30 aldera abiatuko dira bueltan etxera. Izena emateko aukera egongo da datorren asteko astelehenean, urriak 31, 19:00etatik 20:00etara. Gogoratu astelehenean izango dela eta ez martitzenean, ohikoa den moduan, jai-eguna da eta.

Baserrien gaineko berbaldia azaroaren 3an

Herriko baserrien gaineko berbaldia egingo du Josu Tellabide etnologoak datorren asteko eguenean, azaroak 3. Berbaldia izango da Olanen etxeko aretoan, 19:00etan.

Urriaren 20an egitekoak ziren hitzaldi hori, baina, iragarri genizuen moduan, atzeratu beharra izan dute.

Josu Tellabide, esan bezala, etnologoa da, eta ondo baino hobeto ezagutzen ditu gure baserriak. Batetik, baserriak katalogatzen lan egin izan duelako; bestetik, Zaharkinak proiektuan jardun zuelako.

ANTZERKIA

Umeendako ikuskizun paregabea zapatuan

Amama Pantxikaren altxor ezkutua! antzezlana gozatzeko aukera izango dugu bihar, zapatua, 18:00etan. Olanar etxean izango da emanaldi hori. 3 eta 11 urte bitarteko umei zuzenduta dago antzezlana, eta Zenbat Gara elkarteak eskainiko du.

Umeendako antzerkia izango dugu bihar, zapatua, Olanar etxean, 18:00etan. Zenbat Gara elkarteak eskainiko digu eta 3 eta 11 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta dago, bereziki. Sarreraren prezioa izango da bi eurokoa.

Amama Pantxikaren altxor ezkutua! antzezlana musikatua- ren bidez, Zenbat Gara elkarte-

ko kideen esanetan, "umeen garapenerako baliagarri eta bidezko-agoak izan daitezkeen hainbat kontzeptu bultzatu nahi ditugu: gizakien arteko lagunkidetasuna, gure nagusiekiko errespetua eta begirunea eta zentzu materialista hutsa ez duten ondasunen balioa". Helburu benetan garrantzitsuak ditu, bada, antzezlana.

Saioan zehar abesten eta dantzatzen dituzten 17 kantuei esker, antzezlana dibertigarria da eta ume bakoitzak bere ondorioak ateratzea da lortu nahi dutena.

Antzezlanean protagonistak dira Amama Pantxika, Mister Kaskarin gaiztoa, Moko Beltz eta Moko Oker txoriak eta Maddalen, besteak beste. Hiru plano ezberdinetan azaltzen dira pertsonaiok: txotxongilo gisa, tamaina naturallean eta pantaila baten.



Hiru eta hamaika urte bitarteko umei zuzenduta dago antzezlana.

LABUR

Azarorako ekitaldi ugari antolatzen dihardute

Hainbat ekitaldi antolatzen dihardu Udalak azarorako. Besteak beste, honakoak izango ditugu: *Eman eta gero* txotxongilo emanaldia hilaren 19an; hilaren 27an, gaztaina erre jana Anelkarrek eta Udalak antolatuta; azaroaren 26 eta 27ko asteburuan, berriz, Santa Zezilia ospatuko dute eta Luis Anduaga musikaria omenduko dute.

Infantilek bikain hasi dute pilota denboraldia

Olalde elkarteak infantil mailako mutikoei bikain hasi dute denboraldia. Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketan pilotari nagusiagoak baino beranduago, baina, ondo hasi dira. Irabazi egin dituzte jokaturako lehenabiziko bi partidua. Aurreko asteburuan 18 eta 14 irabazi zieten eskoriatzarrei. Andoni Zabalo, Jon Iturbe, Andoni Narbaez eta Iñigo Iparragirre dira infantil mailako pilotariak.



Odol emaien jaia Arraten

Odol emaien jaia ospatu zuten domekan, Arraten. Odol-emate gehien egin dutenek domina jaso zuten, tartean, hamaika antzuolarrek. Honako hauek 25 aldiz eman dute odola: Lourdes Badiola, Jesus Kortabarria, Xabier Etxebarria, Gorka Garitano, Elena Muñoz, Jesus Mari Odriozola eta Mari Jose Rodrigok. 40 aldiz eman dutenen artean, bi emakumezko ditugu: Miren Zubillaga eta Marian Igartzeta. Azkenik, sari berezia jaso zuten beste bi antzuolarrek, emaile handien saria, hain zuzen ere: Luis Mari Jauregik 76 aldiz eman du odola; Pilar Aranguren, berriz, 61 aldiz. Dominak jasotzeaz gain, bazkari ederra egiteko aukera izan zuten sari-tuek Arraten, Debagoieneko gainerako odol emaileekin batera. /A.I.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA
Urriak 29
12:00: Antzuola-Antoniano (Gazteak)
16:30: Antzuola-Zestoa (Erregionalak)

PILOTA
Oraingo asteburuan, zubia dela eta, ez dugu pilota partidurik izango.

EMAITZAK

FUTBOLA
Gazteak 2 Antzuola 3 (Erreg.)
Union Txiki 1 Antzuola 2 (Gazteak)

PILOTA
Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.
Olalde-Lazkao (Nagusiak) 22-6
Hernani-Olalde (Gazteak) 19-22
Olalde-Landare (Pala motzean) . 40-17
Olalde-Eskoriatza (Infant.) 18-14

MUJKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES
IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko urriaren 28a / 244. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Maalako parkeko lanak ez dituzte azaroaren amaierarako bukatuko

IRATI AGIRREAZALDEGI

Maalan parkea egiteko lanak abian dira eta pixkanaka aurrera joan arren, Udaletik jakinarazi digute atzerapenak izango direla. Paseoaren eta parkearen artean egin duten horma handiak ere eman du zeresanik; Udalean eman digute horren berri.

Azaroaren amaierarako Maalako obrak bukatuta egongo zirela esan bazuten ere, Udalean lanok atzeratu egingo direla baieztatu digute; arkitektoak esan digu urtarriaren amaierarako amaitzea dela euren asmoa.

HORMA HANDIA

Bestalde, nahiko zeresan sortu du Maalan ipinitako horma handiak. Guztira, 4,35 metroko altuera du hormak punturik garaiean; proiektuan zehaztutakoa baino ia metro bat gehiago, hain zuzen ere.

Alkatearen esanetan, "hasierako asmoa zen parkean baranda ipintzea; baina horrek ekar ditzakeen arriskuak aintzat hartuta horma altxatzea pentsatu genuen; hala ere, baliteke gerora



Aurrefabrikatutako horma bat ipini dute Maalako parkean; 4,35 metroko altuera du punturik garaiean.

baranda ipintzea, eta horretarako berriz jaitsi beharko litzateke hormaren altuera".

Alkateak onartu du horrelako horma bat ipintzeak ikusme-

nari eragiten diola. "Inpaktua horren handia izan ez dadin aurrefabrikatutako horma bat ekarri dugu. Ez da porlan soila, beraz, ez da horren itsusi gera-

tzen. Gainera, paseoaren eta hormaren artean lorategia egongo da eta horma estaltzeko ere seguru aski landareak ipiniko ditugu", esan digu Patxi Basaurik.

HERRITARREN HITZA / Beatriz Zabalondo • Itzultzailea

Sariak sari

Banatu berriak ditugu aurtengo Euskadi Sariak. Lehenengo aldiz egokitu zait epaimahaian egotea, Itzulpenarenean. Egia esan, atsegin berdingabea iruditu zait urte osoko liburu itzuliak begien aurrean dastatzea. Uda honetan, ia egunero, gosalduta eta irakurtzera jarri naiz itzulpenen bat eskuan hartuta. Eta ahalik eta gehien luzatu naiz zeregin horretan, pozik bai pozik.

Itzultzailea hizkuntzekin aritzen da lanean, besteetatik ekarpenak egin eta ama hizkuntza oretzen. Hizkuntzarekin gozatzen du, hartan

gozatzen da. Poza potzura joango zaio nahi baino sarritxoko agian, baina hala ere, nahi eta nahi ez irtenbidea topatu beharreko tema du beharra.

Lehia eta gogoa ditu aurrera egiteko indarra. Lanbide bakartia da itzultzailearena, askotan bakartzailea ere bai. Ez beti esker onekoa; anonimoa, seguruago.

Maitasun istorio bat hasten du itzultzaileak liburuari



"Lanbide bakartia da itzultzailearena, askotan bakartzailea"

tzaila soilik saritua. Izan da epaimahaikoontzat ere oparirik: hainbeste obra irakurtze

ekitean: maitemintan gazi-gozaok nola, amaitu artekoa du zalan-tzen eraso etengabea hark ere.

Bidaia hori guztia gozamen bidean eramatea da, izan, saria. Gainerakoak gero etortzen dira, berez berez.

Itzulpenaren Euskadi Sarian, ordea, ez da itzultzailea soilik saritua. Izan da epaimahaikoontzat ere oparirik: hainbeste obra irakurtze

hutsa nahikoa ez dela, mahai-ko izatea eta beste kideekin iritziak eta lana trukatzeko gutxi da, ala? Ni, ezetz.

Gainera, lana ez da lan gustukoa bada, nahiz eta bere obligazio eta guzti etorri zitzaidan niri eginkizun hori.

Hala, etxeko lan guztiak fin-fin egin genituen —ustez, behintzat— eta langile saiatu baten izena emateko ordua etorri zitzaigun: Karlos Zabala.

Hura saridun izendatu izana izango da luzera gordeko dudan sentipen gogoangarriena.

Sariak zerua badira, pentsa nolakoa izan den nirea!

LABUR

Ozkarbi eta Goibekoko Gabonetako Loteria

Ozkarbi elkarteak Gabonetako Loteria nahi dutenek hileren 31n, astelehenean, izango dute izena emateko azken eguna. Elkartearen bertan bakoitzak jokatu nahi duen kopurua jakinarazi eta ondoren, Ozkarbi loteria administrazioan jasotako txartelak banatuko dituzte. Bestalde, Goibeko elkarteak ere asteburu honetan ipiniko dituzte salgai loteria txartelak. 59.783 da zenbakia eta txartelak herriko denda eta tabernetan eros daitezke.

Mendi bizikleta irteera izango da azaroaren 6an

Herriaren kirola sustatzeko taldeak mendi bizikleta irteera antolatuta du azaroaren 6rako. Plazan 09:30ean irten eta bi ibilbide izango dituzte txirrindulariek aukeran. Lehena, Elgeta-San Roman-Berrio-Argiñeta-San Lorenzo-San Juan-Etxegorri-Gaztelua-Abadiño-Mendiola-Sagasta-Axpe-Apatamonasterio-Besaide-Kanpantzar-Elgeta. Bigarrena, Elgeta-San Roman-Berrio-Argiñeta-Elorrio-Besaide-Kanpantzar-Elgeta. Izena emateko azaroaren 4a baino lehen udal-etxera jo behar da.

Bi ikastaro izango dira azaroan barrena KZgunean

Azaroaren bi ikastaro antolatuta dituzte KZgunean. Lehena azaroaren 9an izango da 11:00etatik 13:00etara, eta *Conoce el vino* da ikastaroaren izenburua. Bigarren ikastaroa azaroaren 23an izango dute Internet zaleek. Ikastaroaren gaia *Euskara ziberespazioan* da eta orduetara 09:00etatik 11:00etara bitartekoa. Bi egun horietan irakasteko KZgunean izango da edozein zalantza argitzeko.


ANTZERKIA

'Pakitarentzat bakarrik' obra gaur gauean Espaloia aretoan

I.A.
Udalak eta Kutxak antolatuta antzerki saioa izango da gaur, 22:30ean, Espaloia Kafe Antzokian. Ordubeteko antzez-lana Itziar Ituño aktorearen bakarriketa da.

Goenkale telesailean *Nekane* ertzainaren papera egiten duen Itziar Ituño *Pakita*-ren paperean ikusiko dugu *Pakitarentzat bakarrik* antzezlanean.

Talde terapia batean ari den neska baten istorioa kontatzen du antzezlanak. Maitasun kontuak ez zaizkio ongi atera eta mendekotasun asko ditu, besteak beste kafea hartzea. Horien berri emango du jendearekin berba eginez.



Itziar Ituño aktoreak jokatu du Pakitaren papera.

SARRERAK SALGAI

Bestalde, jadanik salgai daude Espaloian Zanguango taldearen *Pan con pan* antzezlanak ikusteko

sarrerak. Emanaldia azaroaren 11n izango da, 22:30ean. Umorak, poesiak eta gizarte kritikak bat egingo dute ikuskizunean.

ANSIALDIA

Azaroaren 6an hasiko dira familiarendako film emanaldiak

I.A.
Familiarendako zinema saioak berri hasiko dira azarotik aurrera. Emanaldiak domekero 17:30ean izango dira, Espaloian. Iaz guraso batek jardun zuen guztia gertatzen eta aurten Guraso Elkartek hartu du lekukoa.

Astero bi guraso arduratuko dira neska-mutilei sarrerak saltzeaz eta zinema ikusteko aretoa gertu izateaz; baita ondoren dena jasotzeaz ere.

Azarorako eta abendurako film guztiak aukeratuta daude.

Gehienak marrazki bizidunak izango dira eta horietatik batzuk euskaraz emango dituzte: *Baloia*, *Lagundu! arrain bat naiz* eta *Olentzero*, besteak beste. Abendutik aurrera zein film bota erabakitzeke Guraso Elkartekoek umeen zein gurasoen proposamenak gustura jasoko dituztela jakinarazi digute.

Azarotik maiatzera bitartean domekero izango dute umeek filmak ikusteko modua. "Elgeta bezalako herri txiki batean beste aukerarik ezean domeka arratsaldeak pasatzeko modua eskaini nahi dugu filmekin", esan digu Guraso Elkarteko kide batek.

Film egitaraua

- AZAROA**
6 *Momo*
13 *Los Increibles*
20 *Lagundu! arrain bat naiz*
27 *Baloia*
ABENDUA
4 *101 Dalmatas*
11 *Socios y sabuesos*
18 *Olentzero*

Eguazteneko ere film emanaldia izango da, 21:30ean, Espaloian. Azaroaren 2an *Amanece que no es poco* filma izango da.

HIRIGINTZA

Saihesbidea azaro amaieran gertu

I.A.
Otsailean ipini zuten Elgetako saihsbidearen lehen faseko lehen harria, eta Foru Aldunditik aurreikusi dute obrak azaroaren amaierarako amaituta izango direla. Kilometro erdiko luzera izango du eta Foru Aldundiak 1,2 milioi euro jarriko ditu lanok egiteko.

Saihsbideak Eibar-Kanpanzar eta Beasain-Elorrio errepideak lotuko ditu. GI-2632 errepidearekin lotzeko izango da, hain zuzen ere, Elgetako irteeran (Elorri-rako bidean) egiten diharduten biribilgunea. Kanpotik 23 metroko erradioa izango du biribilgunea, eta hantxe hasiko da saihsbidearen bigarren fasea.

Lehen fase horren beste muturrean, T formako bidegurutzetako bat egingo dute GI-2639 errepidea Salvador kalearekin lotzeko. 250 metroko tartea dago bi elkarguneen artean.

Bideak bi erre izango ditu, bakoitza 3,50 metrokoa; bazter-

bideak, metro batekoak; eta arekak, 0,50 metrokoak. Aurki botako dute zoruan lehenengo kapa, bidearen zati batean. Izan ere, oinarrian 40 cm-ko geruza bat izango du eta honen gainean, berriz, 16 cm aglomeratu.


Lanak aurrera doaz, beraz, eta azaroa amaitu aurretik saihsbidea trafikoarendako zabalduko dutela baieztatu digute Udaletik.

ARTEKALEA

Eibartik herrira datozenek, ordea, biribilera iritsi aurretik abiadura gutxitzeko hainbat trabak aurkituko dituzte jadanik. Izan ere, Artekalean irilatxoak eta semaforoak ipini dituzte.

Artekalean semaforoak ipintzeak 16.133 euroko kostua izan du Udalarendako. Irilatxoak ordaintzeaz, berriz, Foru Aldundia arduratuko da.

Semafoeren argia behin-behinekora da. Orain argi laranja dago piztuta eta ez dago zehaztuta noiz ipiniko dituzten argi gorria eta berdea; beharbada saihsbidea ireki arte zain egon beharko dugu.



Saihsbideko bigarren fasea biribilgunean hasiko da.



Xoxote inguruan 45 elgetar

Mendirako giro oso egokirik ez bazen ere, herrian kirola sustatzeko taldeak aurrez antolatutako ibilaldia egin zuten 45 elgetarrek domekan. Bi taldetan banatu eta Izarraritz mendiaren magalean barrena ibili ziren batzuk, Aittolatik abiatuta; gainontzekoek gailurrera igotzeko aukera ere aprobetxatu zuten. Ondoren, Xoxoteko aterpetxean egin zuten bat guztiek eta hantxe atera zuten argazkia. Irteeran gustura ibili zirela esan digute. /I.A.

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko urriaren 28a / 25. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

Umeendako zinema denboraldia hastear da

OIHANA ELORTZA


Datorren asteburuan hasiko da umeendako zine denboraldi berria. Zapatu eta domekutan izango da, 17:00etan. Zinekluba ere martxan da eta eguenetan da aurten ere. Ikuslearen egunean, astelehena, hiru euro balio du sarre-rak; eta gainerakoetan, lau.

Azaroaren lehen asteburuan hasiko da umeendako zine denboraldi berria. Bi emanaldi egingo dituzte aurten ere, zapatuan eta domekan, 17:00etan. Dagoeneko ekarri dituzte lehen bi pelikulak: *Robots* eta *Heroe a rayas*.

IKUSLE KOPURUA

2003ko urtarrilean zabaldu zuten zine areto berria. 130 lagun sartzen dira barruan; horietako bi eserleku gutxitu fisikoendako gordeta daude.

Domeka iluntzeko emanaldira joaten da, batez ere, jendea eta baita zapatu gauekora ere. Joan den urtean, 14.720 ikusle joan ziren zinera. Aurten, iraila arte, 6.809 lagun joan dira. Urrian, ordea, arrakasta handia izan duten filmak bota dituzte eta jen-



Obaba filma ikusteko jende ilara sortu zen astelehen iluntzean.

de asko joan da horiek ikustera: *Aupa Etxebeste!* 1.118 lagunek ikusi dute bota dituzten hamar emanaldietan eta *Obaba* zazpi aldiz eman dute.

ZINEKLUBA

Zineklubak ikusle kopuru nahiko finkoa du: 50-60 bat lagun joaten dira, batez beste, eguenero. Hark ere hasi du denboraldia.

25. URTEURRENA

Kirolaz jardun dute Larrain Gainen

O.E.

Larrain Gain elkarteak kirolari buruzko mahai inguru bat egin zuen martitzenean. 25 urte bete ditu aurten elkarte gastronomiko horrek eta urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldietako bat izan da.

Kirolaren gaur egungo egoerari buruz hitz egin zuten Javier Clemente futbol entrenatzaileak, Jon Odriozola Orbea txirrindulari taldeko zuzendariak, Juan

Luis Larrea Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentek, Mikel Etxarri Realeko ordezkariak eta Julen Iriondok. Aitor Elkoro ez zen joan azkenean.

TENIS TXAPELKETA

Elkartearen urteurrena ospatzeko, tenis txapelketa ere antolatutako dute. Finala Larrain Gainen bertan jokatu zuten. Nagusien mailan, Abel Hernandezek irabazi du eta gaztetxoaren mailan, Mikel Zubiagirrek.



30 bat lagun elkartu ziren kirolaren gaineko kontuak entzuteko.



Guatemalara laguntzera

Amaia Goitia oñatiarra Guatemalara joan da Durangoko beste bi neskekin batera. Guatemalan, gutxituendako eskola ireki gura dute eta dirulaguntza eskatzen dute horretarako. Hala ere, azken asteetan Guatemalan izan dituzten uholdeak direla eta, beste behar batzuk lehentsiko dituzte.

Dagoeneko Guatemalara abiatu dira baina dirulaguntza jasotzeko Euskadiko Kutxan zabaldu duten kontu korrontea irekita dago: 30350005380050040560./O.E.

LABUR

Gerardo Markuleta saritu du Arabako Diputazioak

Ezjakintasunak izeneko lanarekin irabazi du Gerardo Markuleta idazle oñatiarrak Arabako Diputazioak antolatutako Ernestina Champourcin izeneko poesia lehiaketan. Gaztelarazko atalean, Maria Jose Alvarezek irabazi du. Guztira, 68 lan aurkeztu dituzte, horietatik 10, euskaraz.


Epaimahaiak saritu du Gerardoren lana aberatsa delako, gertutasuna ikusten delako, hizkuntzagatik eta zuzena delako, besteak beste.

UGARTE

AROTZTEGIA-ALTZARIAK



- Arotz lanak orokorrean



- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxe: 943 76 08 04



Udazkena - negua

Mirari
JANTZIDENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

Neurriak
38tik 60ra



**DAGOENEO ABIAN DIRA #86. ETA #79. PROIEKTUAK.
 AGORRO SINGO ETA MUSAKOLAKO
 KIROL EREMU BERRIAK.**

Inbertsioa: 3.600.000 euro

Debagolenan kirol guztia guztion esku jartzen duten proiektuak. Dagoeneko proiektutik haratago dauden proiektuak. Aparteko Inbertsio Planaren barruan aurrera doazen errealitateak dira. Elgetako salhesbidea eta autopista berria, edo Arantzazuko Gandiaga Zentroa eta Bergarako antzoki proiektu berria bezalaxe... Egunetik egunera errealitate bihurtzen ari zaren proiektuak dira.

Aparteko Inbertsio
 plana 2004-2007



Plan extraordinario
 de inversiones 2004-2007



Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa

**Aparteko Inbertsio Plana.
 Debagolenan ere bai.**





Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 51. alia

IEPA LAGUNOK!

Hemen nago berriz be zuek danokin momentu on eta dibertigarriak pasatzeko gertu. Hil honetan oso pozik nago eta badakizue zergaittik? Aurreko APATXI-ko galderak oso ondo bete ziñuztelako. Horrek esan nahi dau benetan ahalegintzen zaretela eta sarixa irabazteko gogoz zaretela.


Ez ahaztu horretarako erantzun-orriak ikastetxietan entregatziarekin, bestela ezin izango dozue eta saririk lortu eta.
ZORTE ON!



UME KANTUA

Pertsona nagusixak hankak gurutzatu eta umia hanken gainian hartuko dau eta eskuetatik oratuta kantuan egingo dau, hankia gora eta behera mobidu eta erritmua eruanetz.

Arre arre mandako,
Bihar Tolosarako
Etzi Iruñarako,
– Handik zer ekarriko?
– Zapata ta gerriko.
– Harek zeñendako?
– Gure (umiaren izena) txikixandako!



URREZKO ARAUAK

Kirolian edo jolasian dihardugunian askotan bi taldek jokaten dabe elkarren kontra. Zeiñek zeñen kontra jokatuko daben adierazterakuan “kontra” berbia bi taldien atzian jarri biharrian, askotan bixen artian jartzen dogu, eta hori ez da oso zuzena. Zeiñek zeñen kontra egingo daben adierazterakuan holaxe esan biharko giñuke:

- Ze partidu jokatuko dozue bihar?
- Neskak mutillen *kontra*.
- Nagusixak gaztien *kontra* ibilli gara kaniketan errekreuan.
- Gu bixok zuek bixon *kontra* irabazi baietz!
- Zeintzuk jokatuko dabe finala?
- Titiñek Olaizola II.aren *kontra*.






- Ze partidu jokatuko dozue bihar?
- Neskak *kontra* mutillak.
- Nagusixak *kontra* gaztiak ibilli gara kaniketan errekreuan.
- Gu bixok *kontra* zuek bixok irabazi baietz!
- Zeintzuk jokatuko dabe finala?
- Titiñek *kontra* Olaizola II.a.



OHARRA

Jolas bakoitzari marrazki bat dagokixo, honetxek dira:

-  Loria: 3-6 urteko umeentzat gomendatua
-  Baloia: 7-9 urteko umeentzat gomendatua
-  Kometia: 10-12 urteko umeentzat gomendatua

ESAERA ZAHARRAK

Ezagutzen ditzuzu esaera zahar honek? Bai? Ba probatu esaera bakoitzaren hasieria dagokixon bukaeriarekin lotzen.

- | | |
|---------------------------------------|----------------------------------|
| 1 Zozuak beliari, | A haura ikasi. |
| 2 Eurixa eta eguzkixa, | B beti jan eta beti gose. |
| 3 Hil da gero, | C gerturatu eta lau. |
| 4 Ustiak, | D aldaparik ez. |
| 5 Daguanian bonbon, | E ipurbeltz. |
| 6 Urrutiko intxaurrek hamalau, | F karakola eta baria. |
| 7 Jesus, Maria eta Jose, | G Erromako zubixa. |
| 8 A ze paria, | H ez daguanian egon. |
| 9 Zer ikusi, | I erdia ustel. |
| 10 Gustoko tokixan, | J salda bero. |

GALDERAK

Danok dakizue kanpuan bergararroi zela deitzen doskuen, ezta? Asmatu dozue! Mokola edo mokolo! Baiña zer esan nahi dau "mokolo" berbiak?

- a) Jaizalia eta jatorra
- b) Zatarra eta alperra
- d) Iñuzentia eta tontoharrua



Z iur iñoiz tortoloxetan jolasian egin dozuela edo egitten ikusi dozuela. Baiña zer erabiltzen da tortoloxetan egitteko? Zuk ez badakizu, galdetu gertuko nagusixei.

- a) Astuaren edo manduaren belauneko hazurrak.
- b) Txakurraren edo katuaren belauneko hazurrak.
- d) Antxumiaren edo arkumiaren belauneko hazurrak.

KOMIKIXA



ARTXILA MORTXILA

PUXIKA MAJIKUA

Behar dozun materiala:

- Kolore eta neurri bereko bi puxika
- Guraizak
- Makillatxo majikua (nahi badozu)




• Aurretik izkutuan prestatu bihar dozuna

1) Bi puxiketako bat erdittik tolostu.



2) Sartu tolostutako puxikia beste puxikaren barruan, barrukuak tolostuta jaraitzen dabela zainduz.



• Gero lagunen aurrian egin bihar dozuna


3) Bi puxikak halaxe geratu bihar dira: puxiken mutur bixak bata bestia barruan eta puxika bat erdittik tolostuta eta bestia luze-luze.



4) Puxikia eskutan hartu eta zure lagunei erakutsi, normal-normala dala ikusteko.



5) Oin guraiza batzuk hartu eta kanpoko puxikia azpikaldetik ebagi, barrukuak ebagi barik.




6) Erakutsi danei ebagittako puxikia.



ADI: Lagunen aurrian egin baiño lehenago entsaiatzen badozu, hobeto irtengo jatzu. Danak liluratuta geratuko dira zure puxika majikuarekin! A! Eta ez iñori esan zein dan trukua, ados?

7) Ez ahaztu eskuak edo makillatxo majikua astinduz berba majikuak esatiarekin: "artxila mortxila, baietz puztu globua!" Putz egin indarrarekin eta puxikia puztu.



CD-ROM GOMENDIUA

Txirri, Mirri eta Txiribitonen *Gurekin hegan* jolas, musika, ipuin, bideo eta argazkixen bildumia CD-ROMian.



Bertan ehun kanta topatuko dittuzu, eta honetako 5 kantetan zure gustuko musika nahasketak egitteko aukeria eukiko dozu. Gaiñera, karaokia be egin zeinke, baka-rrik ala taldian. Ipuñak sortzeko materiala be badaukazu bertan, eta "Tortolita eta Tron-bron" ipuin interaktiboa be bai, sari izkutua barne. Puzzliak osatzia gustatzen bajatzu, zuretako puzzle dibertigarrixak topauko dittuzu bilduman.

Eta margotzia baldin bada zuri gehixen gustatzen jatzuna, marrazkixak margotu ahal izango dittuzu ostadar berezi batekin. Txirri, Mirri eta Txiribitonen inprimategixan, zure gutunak, egutegixak eta gonbidapenak sortu eta inprimatu zeinke! Jolasak, bideo zati-xak, argazkixak, ... eta dana Cd-ROM bakarrian.

Windows 95 eta zaharraguekin eta Macintoshekin be erabilli leike.

INKESTIA

- 1- Ze kirol gustatzen jatzu gehixen?
- 2- Ze kirol ez jatzu bape gustatzen?
- 3- Kirolik egiten dozu? Zein edo zeintzuk?
- 4- Telebistan ikusten dozu kirolik? Zein?
- 5- Zein da zure kirolari kuttunena edo gustokuena?
- 6- Ze kirolari ez jatzu bape gustatzen?



Mikel Luna Urrutia
9 urte
Mariaren Lagundia, LH 4

Neri futbola gustatzen jat gehixen, baiña orokorrian kirol danak gustatzen jat. Eta gutxien gustatzen jatena saskibaloia da, nahi-ko aspergarrixa pentsatzen jat. Nik "Eskola kirolean" egitten dot futbolian, badmintonian, eskubaloian, boleibolian, saskibaloian ... Kirol pila baten. Telebistan be askotan ikusten dittut futbol, saskibaloia eta pelota partiduak. Nere kirolari gustokuena Realeko Mikel Alonso da.



Joseba Antón Izquierdo
8 urte
Mariaren Lagundia, LH 4

Neri tenisa gustatzen jat, ez dakit zergaittik. Eta futbola eta pelotia ez jat bape gustatzen, aspertu egitten naiz eta. Telebistan be tenisa ikusten dot eta gehixen gustatzen jaten kirolarixa Rafael Nadal tenislarixa da. Real Madrid-eko Roberto Carlos futbolarixa, berriz, ez jat bape gustatzen.



Ainhoa Irizar Frago
9 urte
Mariaren Lagundia, LH 4

Karatia da neri gehixen gustatzen jatena, bertan apuntauta nagualako. Ostera, boleibol eta saskibaloia ez jat gustatzen, aspergarrixak diralako. Telebistan karatia eta eskixa ikusten dittut, Jakan eskiatzen dot eta. Nik futbolian egitten dot. Realekua naiz eta Realeko Xabi Alonso eta Nihat gustatzen jat gehixen kirolarixen artian. Bape gustatzen ez jatenak Real Madrid-eko jokalarixak dira.



Amaia Uriarte Iturbe
9 urte
Mariaren Lagundia, LH 4

Neri eskixa gustatzen jat, nik eskiatzen dotelako. Boleibola, berriz, ez jat gustatzen. "Eskola kirolean" be banabil, eta bertan danetik egitten dogu: fubolian, saskibaloian, ... Baiña telebistan ikustia gustatzen jatenak motorrak eta kotxiak dira. Ez daukat aparteko kirolari kuttunik edo gustatzen ez jaten kirolaririk.

KORRUAN JOLASTEKO

SORGIÑA PIRULIÑA

Korruan egitteko jolasa da hau. Korruan biraka gabitzen bittartian kantatuko dogu kantua. Bukaeran, "Sorgiña, Sorgiña! Ipurdia zikiña" esatian, korroko ume danak lurrera jausiko gara.



Sorgiña Piruliña
Erratzan gaiñian,
Ipurdia zikiña

Txapela buruan,
Sorgiña! Sorgiña!
Ipurdia zikiña!

ERANTZUNAK

- 1- **Logika jokua:** Aukera bat:
- Tatxenkoren Lagunak-Azken Tximiñuak : 84 eta 85
 - Azken Tximiñuak-Txokolatetatxurro: 91 eta 90
 - Beti Gazte- Azken Tximiñuak: 86 eta 89
 - Azken Tximiñuak-Txantxangorrixak: 82 eta 82
 - Betigu- Azken Tximiñuak: 83 eta 81
- Konbinaketa zuzen bat baiño gehixago dago.

- 2- **Igarkizunak:** a)Poxpolua, kandelia
b)Ostadarra
d)Betaurrekuak

- 3- **Kantua: Amona Josefiña:**
a) Txirula eta biboliña
b) Blusa sedazko fiñak
c) Gorrixa eta ariña

IRABAZLIAK

2.a Aitziber Yera
Mariaren Lagundia,
8 urte

3.a Unai Sanpietro
San Martin ikastetxia,
4 urte

Zorionak hiruroi!



Mikel Soto
Aranzadi Ikastetxia
8 urte